

## TREBAKUNTZA 2022-05: ZALANTZAK ARGITZEN

Udaletako hautetsi eta langileen artean sarritan agertzen diren zalantza batzuk argitu nahi ditugu fitxa honen bidez.

**OHARRA:** *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

### OHIKO ZALANTZAK ETA ERANTZUNAK

#### 1.- “Joan behar dut” ala “joan behar naiz”, zein da zuzena?

Biak erabiltzen dira.

Euskaltzaindiak "joan behar dut" hobesten du, baina ez du bigarrena gaitzesten. Zenbait euskalkitan, Iparraldekoetan batez ere, "joan behar naiz" erabiltzen da. Edozein kasutan, ahal dela ez erabili biak nahastean, orain "joan behar dut" eta gero "joan behar naiz". Koherentziagatik, beti erabili behar da molde bera; bata edo bestea, baina biak ez.

Hemen Euskaltzaindiaren araua, laburtuta:

1. **Behar izan** aditza aditz laguntzaile iragankor gisa jokatu da, ondoan agertzen den aditz osagarria edozein motatakoa delarik, iragangaitza denean ere bai:

- a) *Lan egin behar dugu*
- b) *Liburua ekarri behar zenidan*
- c) *Etxera joan behar dut*

• **du aditza + behar** =====> [aditza] + behar + du saileko aditz laguntzailea

• **da aditza + behar** =====> [aditza] + behar + du saileko aditz laguntzailea

2. Halere, lehen puntu esana ez da beteko **behar izan** aditza, datibodun aditz iragangaitz batekin agertzen denean. Orduan **izan** laguntzailearen **zaio** saileko formak erabiliko dira beti:

- a) *Bihar mintzatu beharko natzaizu gai horretaz*
- b) *Azkenerrako gauza guztiak ahaztu behar zaizkizu*

• **zaio aditza + behar** =====> [aditza] + behar + zaio saileko aditz laguntzailea

3. Bestalde, zenbait euskalkitan, Iparraldekoetan batez ere, **behar izan** aditzak **izan** laguntzailea har dezake aditz iragangaitzekin:

- a) *Joan behar naiz*
- b) *Ez zara ikaratu behar*

Jokabide hau ere ez da gaitzesten:

• **da aditza + behar** =====> [aditza] + behar + da saileko aditz laguntzailea.

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

## 2.- Zuzena da "ikusiko gara" edo "elkar ikusiko gara" esamoldea?

Ez, "ikusiko dugu elkar" da esamolde egokia.

1/ Ez da zuzena **du** aditzak **da** aditz gisa jokatzea: \*ikusiko gara...

Izenorde elkarkaria erabiltzea dagokio halakoetan (elkar), eta aditza nor-nork moduan jokatzea.

\*Ikusiko gara formula zabaldu da ('egongo gara' -molde jatorragoa- esaten den modu beretsuan edo), baina **elkar** erabiltzea dagokio, eta **du** aditzarekin jokatzen da.

*Elkar ikusi genuen zineman* (\*Ikusi ginen zineman, \*Elkar ikusi ginen zineman)

*Aspaldian ez dugu elkar ikusi* (\*Aspaldian ez gara ikusi, \*Aspaldian ez gara elkar ikusi)

*Laster ikusiko dugu elkar* (\*Laster ikusiko gara, \*Laster ikusiko gara elkar)

Azken horren balio berean erabiltzen dira, esan bezala, 'egongo gara', 'laster egongo gara' edota 'laster egongo gara elkarrekin'...

2/ Bihurkarietan ere ez da zuzena **du** aditzak (adibidez, 'bota' aditza) **da** aditz gisa jokatzea: \*bota naiz...

Izenorde bihurkaria erabiltzea dagokio halakoetan (bere burua), eta aditza nor-nork moduan jokatzea.

*Ibaira bota du bere burua* (\*Ibaira bota da)

*Neure burua horrela ikusi dudanean, ihesari eman diot* (\*Horrela ikusi naizenean, ihesari eman diot)

Beste kasu batzuetan, **da** jokia ere onartzen dute: 'orraztu', 'garbitu', 'aurkitu'... Egokiak dira, beraz, "orraztu naiz", "garbitu naiz" edota "bakarrik aurkitu naiz" perpausak. Ez, ordea, \*arropa erosi naiz modukoak, 'erosi' aditza beti **du** moduan erabiltzen baita.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699